# HAUTESKUNDE SINDIKALAK

## ELA, berme osoa.

Ezagutzen gaituzu. 100 urte betetzear garela ere, ELAk gaur egungo sindikalismoa egiten du, salaketak eta borroka egiten duena, bai enpresatan bai sektoretan. Baina gure kezka nagusia bizi garen gizarte eredua aldatzea da. Horregatik lan erreformen aurka egiten dugu, langile eskubideak defendatuz eta aberastasuna era justuago batean banatzeko alternatibak aurkeztuz. Zuk bezala, guk ere ulertzen dugulako krisia, ez langileok, baizik eta eragin zutenek ordaindu beharko dutela. Gainera sinetsita gaude indartsuagoak izango garela baldin eta batzen bagara, eta horrela bakarrik egingo dugula posible mundu hobe bat.

**BERAZ, ABENDUAREN 22AN AUKERA DUZU ZURE BOTUARI BALIOA EMATEKO. ZERTARAKO HANDITU ALFERRIKAKOAK DIREN GEHIENGOAK? BOTU KONTSEKUENTE, SOLIDARIO ETA LANGILEA EMATERA GONBIDATZEN ZAITUGU.**

BOZKATU ELA!

ESKERRIK ASKO.

## ELA, toda una garantía.

Ya nos conoces. Aunque estamos a punto de cumplir 100 años, en ELA hacemos un sindicalismo actual, de denuncia y confrontación, tanto en la empresa, como a nivel sectorial. Pero también nos preocupa, y mucho, el modelo de sociedad en el que vivimos. Es por eso que estamos combatiendo contra las reformas laborales y planteando alternativas en defensa de los derechos de los trabajadores y por un reparto justo de la riqueza. Porque entendemos, como tú, que la crisis la deben de pagar los que la provocaron, que unidos somos más fuertes y que un mundo mejor es posible.

**EL 22 DE DICIEMBRE TIENES LA OCASIÓN DE DAR VALOR A TU VOTO. ¿PARA QUÉ ENGORDAR MAYORÍAS INOPERANTES? TE INVITAMOS A QUE EMITAS UN VOTO ACTIVO, CONSECUENTE Y SOLIDARIO.**

¡VOTA ELA!

ESKERRIK ASKO.

## Hautagaiak / Candidatura

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Juan Carlos | Rodríguez Villarino |
| 2 | Juan | Cámara Giraldo |
| 3 | Manuel A. | Aguilar Gil |
| 4 | Pedro Mª | López Urkidi |
| 5 | Ana | Merodio Centeno |
| 6 | José Ignacio | Escalada Garcés |
| 7 | Juan Antonio | Pagonabarraga Cruz |
| 8 | Fco. Javier | Hurtado de Saratxo Otsoa de Eribe |
| 9 | Alfonso | Pereda Olabarrieta |
| 10 | Ricardo | Ruiz Rivera |
| 11 | José María | Morentin Pascual |
| 12 | Txomin | García Zorraquino |
| 13 | Fco. Javier | Echeandia Lolo |
| 14 | Luis I. | Abia Arza |
| 15 | Fernando M. | García García |
| 16 | Mª Mercedes | Varela Lodosa |
| 17 | Raúl | Retenaga Oyarzabal |
| 18 | José Ignacio | Olasagasti Anasagasti |
| 19 | Ediberto | Begoña Orue |
| 20 | Pedro | Casado Mestraitua |
| 21 | Jesús Carlos | García Prieto |

ELA EUSKAL SINDIKATUA BANCO POPULAR



"Votar ELA es la mejor garantía para defender y mejorar tus derechos laborales".






BANCO POPULAR










# HAUTESKUNDE SINDIKALAK




**EUSKAL SINDIKATUA**

*langileekin, erantzuteko prest!*

# BANCO POPULAR

*elecciones sindicales*

Euskal Herrian ezarpen handiena duen sindikatua ordezkatzen dugu. Erronka askori aurre egitea posible zaigu langile askoren partaidetzari esker.
Dakizunez, ELA Euskal Herriko sindikatuen artean ordezkari eta afiliatu gehien dituena da.
Gure esparrua lau herrialdeetara mugatzen da eta espero dugu laster batean esparru horixe bera izatea gure lan baldintzak eztabaidatuko eta erabakiko ditugun esparrua.

Askoz hobeto joango zaigu guztioi horrela izango denean.

Gainera, sindikatu solidarioa dugu ELA: Gure kuoten %25arekin osatzen den Erresistentziarako Kutxak asko laguntzen gaitu ugazaben oldarkerien aurka eta gure eskubideen defentsan, unerik gogorrenetan ere.

Ia kuotei esker soil-soilik finantzatzen den sindikatua izanik, ELAko ordezkariok ez dizkiegu ordainarazten langileei gure maileguak hitzarmen kolektibo deskafeinatuak sinatuz edo urte askotako ahalegin eta borrokari esker lorturiko eskubideak bankako patronalari lagaz.

Tenemos el privilegio de representar al sindicato con más implantación en Euskal Herria. Más de 110.000 trabajadores/as pertenecemos a ELA.

Nuestro ámbito de actuación son los 4 territorios del sur de Euskal Herria y aspiramos a que más pronto que tarde ése sea también el marco en el que se discutan y decidan nuestras condiciones laborales.

Nos irá mejor a todos/as.

ELA además es un sindicato solidario: la Caja de Resistencia, de la que nos dotamos a través del 25% de nuestra cuota, nos permite resistir ante los desmanes de la patronal, por muy duros que sean.

Al ser un sindicato que se financia casi en exclusiva de las cuotas, los delegados de ELA no somos estómagos agradecidos que viven de las subvenciones, ni tampoco hacemos pagar a los trabajadores de banca nuestros créditos con convenios colectivos descafeinados o cediendo a la patronal de banca muchos de los derechos conseguidos con esfuerzo y años de lucha.

***Abenduaren 22a egun seinalatua da Estatuko banka pribatuaren langileok gure lan eskubideak defendituko dituzten ordezkari sindikalak hautatzeko aukera izango dugulako. Uste dugu abagune aproposa dela gure ekintza sindikalaren balantzea egiteko eta aurrera jarraitzeko beharrezkoa dugun zuen babesa eskatzeko.***

## BANCO POPULAR ETA BANCO VASCONIAREN ARTEKO BAT EGITEA

Azken hauteskundeetatik hona berebiziko garrantzia duen gertaera azpimarratu nahi dugu: Banco de Vasconiaren eta gainontzeko filialen desagerpena. Fusioak ekarri zuen negoziaketa prozesu luzean ELAren ordezkariak temati defendatu genuen desagertutako bankuen langileen baldintzak Popularrean artean zeuden baldintza berdinak izan zitezen eta itxi ziren bulegoetako lankideen birkokapena inorentzat kaltegarria suertatu ez zedin. Gure partez, ahalegin berezia egin genuen ondasunen ordainak fusioa egin zen une beretik eskura zitzaten eta ez, enpresak nahi zuen moduan, igarotze-denbora bat pasatu eta gero.

## LARUNBATEN ITUNA. ORDUTEGIAREN ALDAKETA

Bulegoak larunbatetan ixteko ezarri zen mahaian, ELAko ordezkariok argi utzi genuen zein izan behar litzatekeen negoziazioaren eremua: nagusiki zenbat ordu lekualdatu behar ziren eta zein ordutegitan. Horregatik, enpresak sustatu zuen malgutasun-klausulari ezetz borobila eman genion ordutegi berria goma bat bezala luzatzeko arriskua zekarrelako. Horregatik guztiagatik, ELAk ez zuen enpresaren neurrira eginiko hitzarmena sinatu. Egia da lanegunak ziren 21 larunbatak jaiegun direla gaur egun, baina ezin dugu ahaztu urteko jardunaldiak gehienezko muga bat duela. Beraz, erne egon honekin: ordutegi "malgutasuna" eskatzen badigute oso kontuan izan borondatezkoa dela langilearentzat eta ez duela ekarri behar lan ordu gehiago egitea; hartara, arratsaldean orduak sartzen badituzu kontu izan goizeko orduetatik kenduta izan behar dela nahitaez.

## BESTE LAN ITUNAK: BANKU BERRIARENA ETA BERDINTASUN PLANARENA

Banku berriaren itunari dagokionez, ikusita itun berrian langileei hasieran eman zitzaien testuan baino ziurtasun gehiago ematen zaiela, sinadura ematea erabaki dugu. Gainera sinadurak ituna benetan betetzen dela ziurtatzeko aukera emango digu.

Bestetik, Berdintasunaren Ituna ere adostu genuen enpresa eta gainontzeko sindikatuekin, jakitun izanik hitzak eta errealitateak askotan bide ezberdinak eramaten dituztela. Horregatik, gure eginbehar nagusia ituna behar bezala betetzen dela zelatzea da, benetako kontziliazioa lortzeko oraindik dauden oztopoak agerian utziz eta salatuz.

## HITZARMEN KOLEKTIBOA

Laster hasiko da hitzarmen berriaren "negoziazioa". Arlo honetan, ELAren ordezkaritzak argi dauka hitzarmen osoago eta hobeago bat lortzeko ahaleginak merezi duela, langileak enpresaren menpe uzten dituen banakako itun eskasak baino haratago. Hitzarmenaren aurreneko helburua gure eroste ahalmena hobetzea izan behar da, hain zuzen ere bankaren "urrezko" urteetan izugarrizko etekinak lortu zituzten garaietan guk galdu genuena berreskuratzeko asmoz.
Halaber, azpikontratazioari talka eginez, enpleguaren mantentzea aldarrikatuko dugu. Beste helburu nagusia jardunaldia asteko 35 orduetara hurbiltzea izango da. ELAk, beste sindikatuen joeraren aurka eginez, ez du onartzen langile askoren ahaleginei esker lortu diren eskubideak trukerako txanpon bezala erabiltzea.

## EKINTZA SINDIKALA

Beste alde batetik, gure eguneroko ekintza sindikalaren zeinbait atal azpimarratu nahi ditugu:

**1. Langileoi dagokigun duintasuna defendatzea**

Bankako enpresa askotan, Popularrean ere, lekua irabazten ari dira zenbait jarrera autoritario, haietako asko nagusikeriaz eta errespetu faltaz eginaz. Gehienetan emaitza komertzialak lortzeko aitzakiarekin datoz. ELAko ordezkariok prest gaude onartezinak iruditzen zaizkigun jarrera horiek salatu eta errotik mozteko.

***2. Tratu duina euskararentzat***

Euskal Herrian dauden bankuen artean, Popularra nabarmentzen ari da euskal hizkuntzari toki gutxien ematen diona delako. Temati dabil bere elebakartasunean eta azken garaietan ELAk luzatu dizkion eskariei (kartelak, iragarkiak eta bulegoen barruko seinaleak elebidunak ipintzea) ez die jaramonik egin. Halarik ere, ELAko ordezkariok euskarak Popularreko bulegoetan toki duina izan dezan aldarrikatzen jarraituko dugu.

**3. Kontaktu zuzena langileekin**

Orain arte egin dugun bezala, bulegoak sarritasunaz bisitatzen jarraitzea lehen mailako konpromisoa da guretzat. Horrela, zuen kezkak eta arazoak lehenengo eskutik jaso ahal ditugu, gero dagokionaren aurrean aurkeztu eta defendatu ahal izateko, azkar eta diskrezio osoarekin jokatuz, ohi bezala. Izan ere, sukurtsaletan arazo asko gertatzen dira, besteak beste, langileen faltak, bulegoen egoera txarrak, arriskuen prebentzioen urritasunak, onartezinak diren presio edo jazarpenen egoerak eta eskubideen urraketak.

**4. Enpresako jantokia**

Bizkaiko jantokiari dagokionez, aspaldian egiten dugun bezala, arretaz jarraituko dugu bere martxa ona eta jakien kalitatea zaintzen.



***El 22 de diciembre es una fecha señalada, ya que los trabajadores/as de banca privada del Estado tenemos la oportunidad de elegir la representación sindical que defenderá nuestros derechos en los próximos 4 años. Creemos que es éste un momento óptimo para hacer un balance y pediros que nos deis la confianza necesaria para seguir adelante.***

## ABSORCION DEL BANCO DE VASCONIA

En el periodo transcurrido desde las últimas elecciones sindicales, ha ocurrido un hecho importante: la desaparición del Banco de Vasconia y demás bancos filiales y su absorción por el Banco Popular.
Los representantes de ELA hemos estado en el largo proceso de negociación del protocolo de fusión de Banco de Vasconia, y demás bancos filiales, para defender que las condiciones de los trabajadores de los bancos absorbidos pasaran a ser las mismas que las que regían en el Popular. Asimismo para que la reubicación de los compañeros y compañeras de las oficinas objeto de cierre fuera con el menor perjuicio para los afectados. También concentramos nuestro esfuerzo para que la equiparación de las pagas de beneficios se produjera desde el momento de la integración en el Popular, sin el periodo transitorio que proponía la empresa.

## ACUERDO SOBRE LOS SABADOS. CAMBIO DE HORARIO

En la mesa para el cierre de las oficinas en sábados defendimos que la negociación se debería limitar a cuántas horas se debían reubicar y en qué horarios. No estuvimos en absoluto de acuerdo en la introducción de otras condiciones porque estimábamos, y lo seguimos haciendo, que era una merma de nuestros derechos. Por eso desde el principio dijimos NO a la cláusula de "flexibilidad", promovida por la empresa para estirar el horario como si fuera una goma, sobre todo el de los técnicos y comerciales, que somos casi todos. Finalmente no firmamos un acuerdo hecho a la medida de la empresa.
Es cierto que estamos disfrutando ya de los 21 sábados que quedaban por librar, pero que no se nos olvide lo principal: que la jornada anual tiene un límite máximo. Atención a este tema: ante cualquier "sugerencia" de flexibilidad hay que dejar claro dos aspectos: es voluntaria para el trabajador y no debe suponer incremento de las horas trabajadas, así que habrá siempre que preguntar qué horas de por la mañana se dejan de trabajar para trabajarlas por la tarde.

## OTROS ACUERDOS LABORALES: EL NUEVO BANCO Y EL PLAN DE IGUALDAD

Hemos suscrito el acuerdo laboral para los trabajadores subrogados al nuevo banco porque les aporta más seguridad que el entregado inicialmente. Además la firma nos permite la verificación de su cumplimiento.

Por último, también suscribimos el llamado Plan de Igualdad, que no es más que una adecuación a la Ley de Igualdad. En este punto sabemos que la letra y la realidad llevan muchas veces caminos distintos. Por eso nuestra labor principal es vigilar su cumplimiento y denunciar las trabas que seguís teniendo las compañeras para una conciliación verdadera.

## CONVENIO COLECTIVO

En breve, va a comenzar la negociación de un nuevo convenio. En este aspecto, la representación de ELA tiene muy claro que, por encima de pactos individuales rácanos, siempre a merced de la empresa, la pelea que merece la pena es conseguir un convenio que garantice, sobre todo, la mejora del poder adquisitivo que hemos ido perdiendo precisamente en los años en que la Banca tuvo sus más espectaculares beneficios. También lucharemos por el mantenimiento del empleo, por frenar la subcontratación y porque la jornada vaya acercándose a las 35 horas semanales. Para ELA, a diferencia de otros sindicatos, nunca van a convertirse en moneda de cambio los derechos que se lograron con el esfuerzo de muchos compañeros.

## ACCION SINDICAL

En otro orden de cosas, queremos destacar una serie de puntos de nuestra acción sindical diaria:

**1. Defensa de nuestra dignidad como trabajadores:**

Estamos asistiendo en muchas empresas de banca, también en el Popular, al aumento de actitudes autoritarias, prepotentes y de falta de respeto hacia los y las trabajadoras. Vienen disfrazadas de agresividad comercial y de presión por los resultados. Los delegados de ELA nos ponemos a tu disposición para luchar contra ese tipo de actitudes intolerables, que hay que cortar de raíz.

**2. Trato justo para el euskara:**

El Popular está destacando entre los bancos que operan en Euskal Herria porque es el que menor presencia concede a la lengua vasca. Sigue empecinado en un trasnochado monolingüismo y en los últimos años ha hecho oídos sordos a nuestras reclamaciones, en el sentido de que, como mínimo, los carteles, la publicidad y la señalización de las oficinas sean bilingües. Los delegados de ELA seguiremos reivindicando una presencia justa de nuestra lengua en las oficinas del banco.

**3. Contacto frecuente y directo con los trabajadores:**

Nuestro compromiso es seguir visitando las oficinas con asiduidad, para recoger de primera mano y trasladar a quien corresponda los muchos problemas que nos contáis (carencias de personal, mal estado de las oficinas, deficiencias en la prevención de riesgos, situaciones de acoso o presiones intolerables, negación de derechos). Como siempre, con la mayor rapidez y discreción.

**4. Comedor de empresa**

En cuanto al comedor de Bizkaia, tal y como lo hacemos desde hace ya muchos años, seguiremos vigilando atentamente para que prime la calidad y el buen funcionamiento.

ELA 100 URTEZ
euskal sindikatua